


ESKUTITZ EDER BAT.



Ondarribian, Garagarrillaren 5.^{an} 1887.^{an}

EUSKAL-ERRIA-ren Zuzendari Jauna.

Nere adiskide maitea: Gaurko amabietan emengo errikoechean ikusi dedan egintza batek erakarri dit burura, eze, karidadea dala, ez bakarrik irichi-erazten duena egiazko zoriontasuna zeruan, mundu onetan birtute onen bidez egiten diran onegiñakgatik; baizikan ibar triste onetan ere goza-erazten dituela zenbat doai, batezere eskeintzen zaionean jende askoren aurrean sari bat, bere bizia galdutzeko perillean azio noble bat egiten duenari: eta iruditu zait onelako egintzak bear dirala argitaratu, ala mundu guziak jakin eta alaba ditzan gizon aiñ biotz aundikoen izenak; zeren eziñtandiagoak dira bere burua iltzeko zorian paratzen dutenak besteen bizia salbatzeagatik, nola beste ainbeste egin dezaten gisa onetako gertaeran arkitzen diradenean beste batzuek ere.

Bidaso-ibaiko sarrera da guztiz perill aundikoa. ¡Zenbat eta zenbat chalupa doakabe ez dituzte iretsi barra onetan olatuak! Itsasoko trapasak eta ibaieko ur koajetsuak jotzen dute alkar urruñarekin; eta autsi, alcha eta naasten dira urak alako moduan, non biotzikan azkarrinari ematen dioten zer pensa askotan euraen ertzera urbiltzean: bada, dirudi zenbait momentutan, Bidasoak, aserraturik deadar egiten diola:— *¡Laja idak sar nadiñ ire echean!*;— eta itsasoak eranzuten diola, leoi gisako orruakin: —*¡esti atzera!*— eta bien arrear sortutzen dala alako burruka, non izutzen dituzten euren albora urbiltzen diran arrantzale tristeak, esanaz: —*¡nere emazte garbi eta aur gaisoak negarrez daude; eta, ¡arren! izan zazute kupida nitaz!*—

Juan dan illaren 14.^{an} arratsaldeko lau t'erdietan *Donostiarra* de-ritzaion trinkadura zetorren echera bere serbizioa egiñ ondoren: uste-kaberó sortu zan aize gogorra, naasi zan itsasoa eta alcha ziran olatu izugarriak. Iragotzera zijoala Bidasoak itsasoari musu emiten dion to-
kia, egin zuen tira-bira eta barrenen zeramazkien 15 arraunlariak ar-
kitu ziran olatu tartean, zeñak nai zituzten iretsi istanpatean. Oratu
zioten batzuek arraun banari, besteak ol eta tresnai, eta denak zebil-
tzan ate gisa kapenka eta igeri trapas tartean, itoko zirela etsirik
ezpazuten laguntzarik laster.

Aiñ sūšen, piška bat lenago pasa zuen arrisko ura «*Salbatzallea*»
izentzat duen chalupacho batek, zeñak zeramazkien lau gizon eta
amalau urteko mutill bat, arrantzatik echera zetozenak. Itzuli ziran
ariñ, guchi izan arren, eta sarturik olatu tartean euren ontzi erbala,
bizia galdutzeko arrisko aundian asi ziran itsasoari atzapartzarretatik
gizonak kendutzen eriotza segurutik: salbatu zituzten amairu burruka
asko egiñik olatu aekin; baña egiñ arren egiñal guziak beste biak ere
salbatu naian, etzuten al-izan; bada bildu zituzten momentuan ema-
ten zuten azken-asnasa, zeruronz begiak iraulirik, aditzera eman nai
baizizkien bezela euren esker ziñezkoak, ainbeste egin zutelako aek
ere salbatu naian; eta etorri ziran kaiara.

On Baldomero Vega Seoane-koak, zeña baita Tajoko Encomen-
dantea, eta gizon prestua, bizia eta biotz aundikoa, jakindu zuenean
arrantzale oen eginde aiñ umantakoa, izkribatu zion bere bereala «*La*
sociedad española de salvamento de náufragos» izendatzen dan Batza-
rreari, aditzera ematen ziolarik gizon azkar oek egin zuten azioa; eta
Billera ongille onek, arriturik ark esaten zionarekin, eranzun zion be-
realaše alabantzako eskutitz bat gizon salbatzalle oentzat, biraltzen
ziolarik 25 pezeta bakoitzarentzat eta zillarrezko medalla bana patro
eta ondorengoarentzat eta brontzezkoak beste irurentzat, euren agiria-
kin. Eta gañera esaten zion, gauz oen entrega egin zezala otsandirik
aundienarekin.

Pensamentu au adierazirik Alkate jaunari, ekar-erazi ditu onek
erriko echera alako azkartasunaren prueba eman zuten bost gizakume
oriek, Abade nagusi eta patro batzuek lagunduaz, eta danbolinteroak
alkate-soñua euren aurretik joaz; eta bildutzen da jende asko, ala aun-
dimandia non chea, gizon oriek ezagututzeko eta sarien entrega iku-
sitzeko. Momentu onetan asitzen da musika kalean bere soñuak aidean
banatzen; eta alcharik Enkomendante jauna, Alkate eta Bikario jaun

errespetagarrien ondotik, ematen dizkie medalla eta diruak lau gizonai, esanaz: len esan dedan Batzarreak ematen dizkiela pozik aundienarekin sari aek egin zuten azio arrigarriagatik, eta berriz ere ikusitzen badute lagun projimoaren bizia aiañ tranze estuan, egin dezatela alegiñ guzia salbatzeko, eta mereziko dituztela orain bezela mundu guziaren alabantzak. Ongi da, jauna, esanaz, eman zizkieten eskerrak, eta itzuli ziran euren eserlekutara.

Eta orain duda gaberik galdetuko du irakorleak ¿eta mutilla? ¿etzioten eman saririk aurrari? ¡Mutilla! Berreun brasatan liša arrantzan dagoen arrantzalea baño erneago zegoen entzuten an esaten ziran itz guziak eta diru eta medallai begira, Deitu zitzakion, bada, eta urbildu zan bere gaitzikabeko biotza ezpañetan zuela, isurtzen zitzaion farre murriskirekin; eta pallako batzuek egiñaz paratu zion Enkomendante jaunak zinzillik medalla, eta esan zion: ¿Zér egingo diezu diru oeki? Eta aurrak eranzun zion bere begi beltzak zabalduaz:—¡Jauna, amari eman!—Nik uste det momentu artan etzela bere biotzean tupots bat sentitu etzuenik, eta gure begiak etziran apartatu aur arengandik, aliketa salatit irten arte.

Ona orain amairu bizi itsas genasiari kendu zizkieten bost gizakume azkar aen izenak: Pedro Oronoz patroia; Trifon Lecuona, onen kuñadoa sota-patroia; Pedro Oronoz, patroiaaren semea, amalau urtekoa: eta Faustino eta Ascensio Oronoz, patroiaaren anaiak; au da, kasi famili bateko umeak.

Nola eman zitzazkien sari oek, paratu zuten paper batean, eta azpian euren izenak pararik erriko bi buruak eta Encomendateak, bukatu zan billaldia, milla orduon emanaz aiañ gora euren izenak alcha dituzten arrantzaleai.

Zure adiskide eta laguna

OTAEGI-KO KLAUDIO.

